



baleike



karidateko bentaren disko berria

HERRI ALDIZKARIA

Juan Belmonte, 29 behea

tel.: 943 86 15 45

faxa: 943 86 17 42

email: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

BALEIKE KULTUR ELKARTEA

email: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea

Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Koordinatzailea

Juan Luis Romatet

Kazetariak

Itsaso Ibarra

Maitane Urbieta

Itziar Garate

Kolaboratzaileak

Miriam Romatet, Dani Carballo,

Belen Golmaio, Abelin Linazisoro,

Haize Galarraga, Xabier Aranguren,

Karmelo Arroiabe, Gorka Ormazuri,

Xabier Aizpurua, Ibon Aizpurua,

Izaga Garzia, Beñat Fernandez de

Arroyabe, Ihintz Linazisoro, Jon

Maia, Eguzki Agirrezabalaga, Natur

Taldea, Ander Hormazuri, Aitor

Manterola, Imanol Garate,

Joseba Esnal, Belen Golmaio

Azaleko argazkia

Foronda Kultur Etxea

Diseinua eta maketazioa

Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa

Imanol Azkue

Publizitatea

943 86 15 45 tel.

Inprimategia

Antza

Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

1.100 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN


1136-8594

Baleike ez du bere gain

hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzukizunik.

aurkibidea

librean	4
puntocom	6
elkarrizketa antton garikano	7
erreportaia akuikultura: bigarren itsasoa	10
orain hamar urte	13
ibilbidea plazaolaren martxan	14
fotonobela	16
olarru zopa	19
gurre zumai zarra donato bidasoro iraundegi	20
kirolak	25
surfa eskalada eta gimnasia	28
kultura	28
zumaiako arte ez horren ezaguna zine forum	30
agenda	30



elkarrizketa
antton garikano
itzultzailea

“Euskaldunarentzat ia sormen lan baten parekoa egiten dugu, bestela normalean ez luke iristerik izango beste idazle horren ametsera”

Argitalpen honen edizioko laguntzaileak:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



kutxa

gizarte ekintza



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

Urtero bezala. Nola ez, bada?

Aitortzen dut. Dagoeneko Gabonetako loteria erosi dut. Baita, urtero errepikatzen den ohiturari jarraituz, familia eta lagunen artean banatu ere. Aurten, gainera, garaiz eta inoiz baino txukunago egin ditut ditxozoko "partizipazioak", zozketaren bezpera arte itxaron gabe. Zenbakia ere, kapikua ez den arren, buruz dakit. Nola ez, bada, azken bi hilabeteotan erredakzioko sarrerako ate atzean letra deigarritz idatzita ikusi baldin badut goiz eta arratsalde etengabe? Nola ez, bada, milioiak eskuratuz gero ingurukoek zer eringo luketen goiz eta arratsalde etengabe entzuten badut?

Bai, egia da. Joan den ostiralean asteko erosketak egitera joan eta karroan (bai, beti ezkerrean okertzen diren horietako batean) sartu nuen lehen gauza libra bat polboroi izan zen, patrikatik ateratako papezko zerrendari jaramonik egin gabe. Jakin badakit ez nuela bekatu egin; baina kezkatzen nauena da kasik konturatu gabe hasi nintzela plastikozko poltsa zurian eskukadaka sartzen. Kolore eta tamaina guztietakoak, baina batez ere, eta ez dakit zergatik, almendrazkoak eta txokolatzekoak. Hau ere, auskalo, urtero errepikatzen den ohitura non-bait. Eta nola ez, bada, supermerkatuko lehen pasiloan sartu eta ezkerrean (kasualitate hutsa?) mutur aurrean jartzen badizkidate?

Urteroko ohiturari jarraitzen badiot, badakit Gabon inguruko oporraldi laburrak iristen direnean "Ondo bukatu eta ondo hasi" batekin agurtuko ditudala lan-kideak eta etxerako bidean Corsa txikiko irrati kaskarra piztuz gero, gabon abesti bat kantatuz sartuko naizela autopistan.

Eta nola ez, bada, "Loteria ez zaigu tokatu, baina ondo bukatu eta ondo hasi" batekin agurtzen banaute eta albistegien artean intxaur-saltsa usaina, opari itxura eta zorion mezu zein doinua dituzten irratsaioak baino ez badituzte eskaintzen?

Aurten ere, Gabon gauean, familiakoekin mahai inguruan eseri aurretik parrokia paretik pasatuko naiz. Eskailerak igo, egurrezko ate lodi eta pisutsua bultza eta burua luzatuko dut barrualdera. Segurutzik, bertan izango dira Gabon Abesbatzakoak, denak urdinez jantzita eta aurpegi nekatu bezain alaiak, egun luzea "Hobeto kantatuko dugu, askoz ere gaur baino, Jangoikuak lagun deigula, datorren urteraiño" batekin agurtuz. Eta nola ez, bada, nik neuk ere ohiturarekin jarraitu nahi baldin badut?



Eguzki Agirrezabalaga

Hemen gaituk berriz e

Hemen gaituk berriz e; hemen gaituk bueltan. Ta gañia seguru gaxibek guk dakiun batek nahi baño irakurle gehiok bota txula faltan gure kontuak. Guri behintzat majina bat herritar arrimatu zikuk kezkatuta; aber ba aurreko hilian zeatik ez deun eskribitu, ia ez deun gehio eskribitu bihar, ta holakuak.

Egia esan, Baleikeko tximoso hoiek ezteie besteik meezi; nola leike ezerre esan gabe fiñ-fiñ indako kronika ez publikatzia, ta hori izango bauke dana... guria kendu ta beste kontakatilu horren inpertinentziyak jarri etzixkien ba!

Hamabost egunian eztek giro izan kuadrilan; bateko biraua ta beste-ko madarikaziya! Lotsik ez, ez batek ta ezta bestiak e; batek, kontakatilu piiiiaiiiiiiii horrek esan dittunak esateatik, eta beste tximoso piiiiaiiiiiiii hoiek gurrian partez beria jartzeatik.

Etorri huan hurrengo hila ta han zitorrek Baleikeko tximosa e punttu puntuan "kronika" eske. Jesukristonak eta bi aitu zizkian gizajo harek! Damian heldu in bihar izan ginian, lepoa salto ingo zitxion bestela. Hura huan marrua in hura, Oriyoko balianak txiki laga zizkian Damianek. Baña ez huan bakarria izan; zeñek esan tzian euskeraz birauik etzala? Etzixkian ondo ezautzen kuadrilakuak!

Azkenian, aurrez erabakita bezelaxe, zea esan ginitxion tximosuai, huelgan gebela ta hil hontan etzeola kronikaik. Tximosuak marziano arpeya jarri zian:

- Huelgan? Ta ze eskatzen dezue?

- Ze eskatuko diau ba, beste kontakatilu piiiiaiiiiiiii horren inpertinentzi gehio ez jartzia!

- Baña esan genizuen igual beste batenbatekin txandaka ateako gendula ta-- tximosuak.

- Ba oain badakik zein dan kondiziyua, kronika nahi badek hilero jarri biharko dek, beste-la batez!

Han jun huan tximosua, mela-mela inda, putzutatik ertenda bezelaxe.

Astebetera azaldu huan gure tximosua, marziano arpeyakin, baño lasai xamar:

- Ze oaindik huelgan?

- Aber ba! Ta kronika ze, hilero?

- Juxtu hortaz hitzegin nahi nun zuekin. Arri-txukin eon gea ta esan diyoun ze eskatzen deuzen...

- Ta ze esan dik piiiiaiiiiiiii horrek!

- Esan diu lasai eoteko, beak hilero hilero eskribituko dula; gañia zuenak baño gauza inportantiauak omen dazka kontatzeko.

- Ta zuek kasu in ezta, txoro hoiek

- Ez, guk nahio txandaka iten badezue baña huelgan segitzen deuzen bitartian Arri-txuk ingo omeen txu.

Berehala bukatu huan huelga; hori bakarrik falta diau ba, kontakatiluak eskribitzia hilero.

Orduan badakizue, ondo disfratau kronika hau, letu bi aldiz, datorren hilian ezta ezer interesateik eongo ta.

Hurrenguan kontu gehio.

estala petik




Joxe Luis

Matissen dantza

Baleikerako aspaldian ezer egin gabe, lehenengo garaiki eta oraingoei buruz pentsatzen nabilela eta herritik kanpora bizitzera joandako zumaia arrak abiapuntutzat hartuz zerbait idaztera nindoanean, bat-batean deja vu antzeko bat izan dut (eta espero dut nostalgiakerietan ez erortzea), eta hasierako irudi bat etorri zait burura. Aldizkariaren bigarren zenbakian edo izan zela uste dut. Garai hartan ikasle genbiltzan Leioan eta ilustrazio bat eskatu zidaten testu bati laguntzeko. Testua aldizkarian hasieratik egon den sexualitateari buruzko atalean agertzekoa zen. Titulua: Sexua eta drogak. Gai gogorra hasteko! Kañeroa. Rockanrola bakarrik falta zen. Bidali nuen marrazkian bikote bat azaltzen zen biluzik, porro bat erretzen eta raia batzuk sartzen. Eta atzean, horman eskegita Matissen koadro bat koptatu nuen (egia esan ez dakit koadro hura zergatik jarri nuen). Oso ezaguna da, "Dantza" izena du, kolore laranja eta berdeetan. Gehienok ezagutuko duzue: bospasei pertsona azaltzen dira eskuetatik helduta dantzaz, "al corro de las patatas" bezala.

Irudi hartatik hona denbora dexente pasa da (ez dakit zenbat urte: hamar, hamaika, hamabost urte?). Asko dena dela. Eta beno, metaforak metafora, bizitzaren dantzak ere aurrera jarraitzen du, bakoitzak egindako aukerak, edo izandako aukerak aprobetxatuz. Batzuk sexu askorekin, beste batzuk droga askorekin. Batzuk eskuetatik helduta zirkuluan dantzaz eta beste batzuk bakarrik. Eskutik helduta dugun hori askotan ez dugu oso ondo ezagutzen; parean tokatu da. Edozein egunetan Teleberrin esango dute nola garajejan bonba nuklear bat eraiki zuen, edo antzeko zerbait (seme-alaba gutiak frijitu dituela-edo ez denean!). Bakarrik dantza egitea tokatu

zaiona, berriz, eta irudiekin jarraituz, hau oraintxe inprobisatua, bere buruaren baitan jiratuz, taladro bat bezala lurtean zulo bat egiten hasiko da ohartu ere egin gabe eta pixkanaka lurperatuz joango da, guztiz desgertzen den arte. Dantza bakarrik egitea nahiko gauza arraroa baita. Normalean taldean egiten



Jon Mantzisor

da, indibiduoak komunitatearen parte bezala onartuz, edo bestela bi pertsonen arteko harremana bilatzeko. Eta nola ez, sexua. Dantza askoren muinean sexua baitago. Hori nahiko garbi ikusi nuen duela gutxi emakume afrikar batzuk dantzaz ikustean. Mugimendu oso primarioak, lurrari eta pertsoneri (gorputzari) oso lotuak. Noski, haien alboan gu euskaldunok... gure mugimendu baldarrak... bakoitzak kajo baten barnean egongo bagina bezala. Mendetako ohiturek eta mendetako "zibilizazioak" gure hezurak eta giharrak zaharo gogortu dizkigute. Mendetako legeak eta mendetako elizak. Bai, gero esango dute euskal dantzak ere behar berdintsuen forma estilizatuak direla... baina hain estilizatuak!!! Ezpatadantza..., gu gelditu gara azkenean ezpatak bezala! Zuzenak, gogorrak eta hotzak.

Dena dela, euskaldunok XXI. mendera arte iraun badugu, guk ere, gure eran dantza egiten jakin dugulako izango da. Eta beno, gauza arina izan nahi zuen honek doktorego tesi baten itxura hartu duenez, bukatzera noa. Barkamenak, ze ez dakit zertan nabilen ezagutzen ez dudan gai bati buruz hainbeste hitz egiten. Ea dantzak kursilloren batera edo apuntatzen naizen negu honetan.



©EUSEBIOFUMIA - Zuzenak

erantzun ugari inkestaren atalean

Inkestaren atalak igoera nabarmena izan du urrian eta azaroren hasieran. Iraileko inkesta 50 pertsonak erantzun bazuten, oraingo hau 92 lagunek erantzun dute. Badirudi isurketen gaiekin kezkatuta agertu garela zumaiarrak. Inkestaz gain, interesgarriak iruditu zaizkigu hor behean irakur daitzeken iritziak. Alde batetik, hutsik dauden etxebizitzetzi buruz hitz egiten du Kaxkak. Zurrumurruek zenbateko indarra duten ohartzen gara bigarrena irakurriaz. Galvanizadosen auzia puri-purian zegoena, Conservas Ortiz itxi zutela zabaldu zen herrian.

INKESTA



IRITZI BATZUK

Zumaian 618 etxebizitza daude hutsik

NORK: kaxka NOIZ: 2004/11/09-10:46 GATA: Gizartea

Etxebizitza bat erostea bizitza oserako zama den gaitasun, herriko etxebizitzaren %17a hutsik daude.

Dela egunkariak gaur argitaratu duen erreportaian ageri dira datuak: Zumaian 2.688 etxebizitza daude, eta horietatik 618 hutsik daude. Baina ez pertza gure herriko kasu bereziki denik. Inguruko adibide batzuk: Aspeitan 5.785/1.135 (%20); Zestean 1.308/293 (%20); Getarian 1.240/296 (%24). Orión 2.003/204 (%10). Bitxiak dira Zarautz eta Debako datuak: Zarautzen 11.452/26 (%9); Deban 2.621/78 (%3). Bi herri hauetako datuak nola hartu diren ez dakit, baina ez dirudi oso errealak direnik.

Dena den, eta datu orokorago bat emateko. Gipuzkoan hamar etxebizitza bat dago hutsik: 292.115 / 29.388. Eusko Jaurlaritzak Bizigune programa jartzen zuen mairuan etxebizitza honak alokairu agoki baten bitartez bete zituzten, baina orain arte 321 jabeek baino ez dute itena eman. Etxebizitza horietako bat alokatzeko prestatu direnak, berriz, 7.794 dira. Ideia ona dela iruditzen zait, baina, emaitzak ikusita, garbi dago buktzada handi bat behar dela, eta horretarako neurri eraginkorak hartu beharko direla.

Datu bat falta zaigu: Zumaian hutsik dauden 618 etxebizitza horietako baten bat ba al dago Bizigune programan?

ERANTZUNAK (8) Erantzun

Ortizek itxi egin al du Zumaian duen lantegia?

NORK: xipi NOIZ: 2004/10/22-11:22 GATA: Ekonomia

Ortizek Zumaian duen lantegia itxi duela entzun dut

Egia esan, ez dut informazio zehatzik, baina esan didate Ortizek Zumaian duen lantegia itxi egin duela. Egurko ondoren duen lurzaila prestatzen aritu dira, baina dirudienez —berro dit informazio hau ez dagoela kontrastatuta— askenean Gasteizera joateko erabaki dute. Hala bada, kolpe handia izango da, bertan Zumaiake emakume askok egiten baitzuten lan. Zerbait badakizue, informazioa osatu eta gezurtatu (nahiago nake gezura izango balitz)

ERANTZUNAK (2) Erantzun

ERANTZUNAK

*Ortizek itxi egin al du Zumaian duen lantegia?

Baleika, 2004/10/22 - 02:25 PM

Zurrumurruek kaxean dago, bai. Enpresa berarekin harremanetan jarrita, esan dute datorren astelehenean auzera zenbat obra egin behar dituztela enpresan, eta hori dela eta, ez omen dute lanik egingo denbora batean. Gainera, berro irakiko dela argitu dute Ortizeko arduradunak. Es hola den.

Erantzun gai nagusiari | Erantzun herri

*Ortizek itxi egin al du Zumaian duen lantegia?

pagotxa, 2004/10/22 - 07:13 PM

Gaur Euskin langile batek, amaia egosteko ura ezin dela ibaiara botu eta, enpresak itxi egin behar zuela esan du. Herriela jakinarazi egin zioten langile atzo, baina gaur berro lanera dugu dituztela, amaia egostea nonbaitetik ekartzen ari baitira.

Erantzun gai nagusiari | Erantzun herri



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

MIREN SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL

-ALBAITARIAK-

asteguntzan: 16:30-20:00
larunbatetan: 10:30-13:30

Basadi, 7 behea
Tel. 943143310
Tel. mugikorra: 608- 775508

Larrialdiak
- 24 ordu
- zeure etxean

Karmengo Arma, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L



ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA 943 862543

Zorionak Antton!!

Antton Garikanok itzulpengintzari dagokion Euskadi Saria irabazi du, Leo Perutz idazlearen *Zwischen neun und neun* eleberria euskaratuta.

BELEN GOLMAIO

Antton Garikano irakaslea da, eta azkeneko hamar urte hauetan Zumaiako Institutuan ari da ingelesa irakasten. Euskadi Sariaren irabazlearekin elkarrizketatxo bat egin nahi izan dugu, zorionak emateko, eta bide batez, bere langintza honetaz hitz egiteko.

Antton, *Bederatzietatik bederatzietara* liburuarekin irabazitako Euskadi Saria, orain arte jasotako saririk garrantzitsuena al da?

Ez naiz oroitzen zenbat sari jaso ditudan, baina askorik ez. Eta bai, nik uste dut baietz, bera dela handiena edo behintzat handitasun gehien ematen zaiona.



"Gutxi gara atzerriko literatuta euskaratzen aritzen garenak"

Ustekabean iritsi al zaizu sari hau, ala bazenuen halako susmo edo itxaropen bat?

Duela hiru edo lau urte ere finalisten artean egon nintzela uste dut. Gutxi gara atzerriko literatura euskaratzen aritzen garenak. Hala, beti pentsatzen duzu zeure artean, urteren batean iritsiko dela. Eta nik ez dakit nondik nora edo zer konjuntzio kosmiko egon den, baina finalera iritsi nintzen, eta gustura. Egia esan, pentsatzen dut izan dela liburua atsegina delako, arina eta irakurtzeko erraza.

Alemanetik itzulitako lehenengo lana al da?

Ez, mordoxka bat badauzkat, bost edo sei bai. Esaterako, Hoffmann-en *Ipuinak*, Kafka-ren *Prozesua*, Chamisso-ren *Peter Schlemihlen Istorio Miresgarria*, filsofiako liburu bat...

Zergatik aukeratu zenuen idazle hau?

Urtero eskaintzen da idazle zerrenda bat euskaratzeko, enkante publikoan. Itzultzaileok askotan egoten gara ea zer ateratzen den, geure gogoko idazlea noiz azalduko, eta saiatzen gara sarean harrapatzen.

Eta idazle hau zure gogokoa al zen? Zergatik?

Arrazoi asko daude: bere idazteko era oso zuzenekoa da, begietatik sartzen zaizu eta irudiak barra-barra erabiltzen ditu. Pelikula bat ikusten ari bazina bezala da. Alfred Hitchcock-ek liburuaren eskubideak erosi zituen, pelikula bat egiteko ideiarekin, baina gero ez zuen aurrera egin.

Horrez gain, Leo Perutz bi gerren artean bizi izandako idazlea da, Europako bi gerra handien artean. Asko sufritutakoa zen eta atzerrira joan behar izan zuen. Euskal Herri honetako etxeetan ere makina batek kanpora joan behar izan zuen gerragatik, eta horrek zer pentsa edo gogorazi egiten dizu, alegia sufrimendua, etxea utzi beharra, eta herriarekiko maitasuna toki guztietan dagoela zabaldua. Horrek ere beragana-ko atxikimendu txiki bat sortu zidan. Baina, berez esango nuke arrazoi nagusia dela liburu ederra izatea. Itzultzen hasi eta neronek ere barre asko egin dut.

Beraz, esan al dezakezu gozatu egin duzula liburu hau irakurtzen eta itzultzen?

Beno, itzultzen ez dakit hainbeste gozatu dudan: atze-aurre asko egin behar izaten dituzu. Askotan esaldi batean katigatu, eta egun guztian zabilta hara eta hona harekintxe, gainetik kendu ezinik. Itzultzen daramazun urte edo urte eta erdian lepotik errotarri bat eramango bazenu bezala. Behin bukatuta ikusi, eskuetan hartu, eta "hau nik egin diat ba" esaten diozu zeure buruari. Eta orduan patxada hartu eta hasten zara liburuaz gehiago gozaten.

Zein dira itzultzerakoan izan dituzun zailtasun nagusiak?

Egia esan, ez nuen zailtasun handirik izan, aurrez ere asko aritu naizelako euskaratzen. Agian, zera: eza-gutzen ez nituen zenbait karta-joko eta arau zeuden. Baina galdetuz eta ikertuz egiten da bidea. Eta irakurleaz pixka bat errukitu beharra dago: ezin diozu eskatu etengabe entziklopediatara jo dezan. Ez dut esaten liburuaren maila jais-tea, baizik eta egokitzea egungo irakurlearen mundura eta jakinduriara, irakurleak pentsa dezan liburu hori euskaraz sortua ere izan zitekeela eta pentsaera euskaldun batena izan zitekeela. Pixka bat horretan saiatzen gara.

Zure lehenengo literatur itzulpena al da?

Ez, asko egin ditut. Orain dela hamaika edo hamabi urte hasi nintzen eta benetan orduan izan zen neketsua, ez zegoelako ikasketarik honen inguruan. Jende mordoxka hasi ginen zaletasuna geneukalako eta esaten genuen: euskaldun jendeak zergatik irakurri behar du gaztelaniaz edo frantsesez? Askotan, gainera, ikusirik irakurri behar dutela gaztelania eta frantses txarrean. Batzuetan jendeak

euskara susmopean jartzen du eta pentsatzen du segurue-na gaizki dagoela. Hain herri txikia izanik, saiatzen gara edo saiatu behar genuke gauzak ondo egiten, bizitzaren maila guztietan.

Itzulpengintza tekniko ala literarioa, zer nahiago duzu?

Gustatu gustatu, literatura gehiago. Baina askoz neke-tsuagoa ere bada, atze-aurre gehiago eman behar dizkiozu. Teknika berehalakoa da, emaitzak segituan ikusten dituzu. Literaturakoak berriz, zeure ustetan bukatuta bidal-tzen duzu, eta berriro etortzen zaizu. Katea balitz bezala. Zuzentzaileak eta. Baina satisfazio alde-tik literaturak gehiago ematen dizu, eta aukera gehiago ere bai zeure barnetik gehiago jartze-ko: sentimenduak direla, emozioak... Lan des-berdinak dira.

"Galdetuz eta ikertuz egiten da bidea. Eta irakurleaz pixka bat errukitu beharra dago"

Horrelako lan bat bukatzen duzunean norbaiti ematen al diozu irakurtzeko?

Xelebrea irudituko zaizu, baina liburu bat bukatzen dudanean,

hartzten dut nire ama lasai neguko gau luzeetan, edo udan eguzkitan dagoenean, edo nonahi, eta bere ondoan jartzen naiz liburua irakurtzen eta pasarte bat irakurri eta antzematen diot lehenbizikoan hartu duen ala ez.

Zure kritiko onenak etxeokak dira orduan?




Ekin
Ekin
Ekin

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet

DIGITAL+ CANAL+


OPTIKA ZUMAIA

Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

Arantza Aramendi


EGUZKI
G. INMOBILIARIA

Harategi kalea, 15 behea
943 86 22 65 - 609 46 56 37

Bai, halaxe dira. Zer gai den, batzuetan amagana jotzen dut, eta besteetan aitagana. Edozein liburutik baino gehiago, etxekoengandik ikasi dut. Lehen, garai batean, bizirik zeudenean erabiltzen nituen aitona eta amona. Haiek joan ziren eta orain gurasoak.

Nola sailkatzen dituzu gaiak? Zein joaten da amarengana eta zein aitarengana?

Amarengana joaten dira gehiago eguneroko gauzak: etxeko kontuak, naturako gauzak, harremanak jendearekin. Eguneroko bizitza, esango nuke.

Aitarekin berriz, berak ikasketa teknikoagoa izan duenez, beste alderdi batekoak: industria-kontuak eta horrelakoak. Askotan aitak hartzen du liburua eta zerrenda bat egiten dit, bere ustez gauzek nola izan behar luketen.

Poza hartuko zuten irabazi duzun sari honekin?

Bai, poz handia hartu dute.

Lehiaketa askotan parte hartu al duzu?

Bakar batean ere ez. Honetan ere ez gara gu aurkeztu, aurkeztu egin gaituzte. Aurreko urtean argitaratutako liburu guztiak hartzen dituzte kontuan. Gero, hots egin eta galdetu egiten dizute saria zuri egokitzen bazaizu ea hartuko duzun.

Aurrera begira, itzulpengintzan jarraitzeko asmoa al duzu?



Beharko. Orain dela sei edo zazpi hilabete liburu handiagoa bukatu nuen, laurhun bat orrikoa. Laster etorriko zaizkit frogak zuzenduta, berriro irakurri beharko dut, eta beste sei hilabete edo urtebete pasako da hura argitaratzerako. Eta literaturarena ez dut uste beste puska batean egingo dudarik, nekea delako buruarentzat. Nik uste orain, ez banaute gauza oso politarekin tentatzen behintzat, alde batera utziko dudala. Neure bizitza pertsonaleko ordu asko kendu dizkit itzultze horrek eta lagunartean zoazenean ere, askotan burua beste toki batean daukazu. Uste dut atsedentxo bat hartuko dudala.

Zergatik ez dira hain ezagunak itzultzaileak?

Gu itzalean gelditzen gara. Hala ere, Euskal Herrian normalean itzultzailearen izena adierazten da liburuaren azalean. Geure lana da idazleak bere hizkuntzan amets egitea eta guk amets bera euskaldun bati eskaintzea. Ni amets horretan sartzen naiz eta amets hori pentsatzen dut euskaldun baten eran eta gero saiatu behar dut amets hori euskaldun bati pasatzen, baina jatorrizko ametsa beste norbaitena da.

Itzultzailearen lana sormen lana ere bada orduan?

Euskaldunarentzat ia sormen lan baten parekoa egiten dugu, bestela normalean ez luke iristerik izango beste idazle horren ametsera. Ontzi

komunikatzaileak gara. Hor tartean gauden ezkutuko langileak.

Agurtzerakoan berriro zorionak Antton, eta zumaierrok esaten dugun bezala, **osasunarekin urratu!**

“Geure lana da idazleak bere hizkuntzan amets egitea eta guk amets bera euskaldun bati eskaintzea”



- * Eguneroko bazkaria
- * Pintxo eta bokatak
- * Koadrilentzako menu bereziak
- * Kazuelitik eta plater konbinatuak

Erribera kalea, 16
Tel. 943 862517



Tel. 943 143379



Akuikultura: bigarren itsasoa

Akuikulturako heziketa ziklo berria zabaldu dute Mutrikan, Euskal Herrian mota honetako ziklo bakarra.


ITZIAR GARATE

Mutrikuko portuan ari dira ziklo honi dagozkion eskolak ematen. Bertan, irakasle moduan, bi zumaia ditugu, biologiak biak: Inaxio Manterola eta Imanol Garate. Bigarrenarekin hitz egin dugu ziklo honen ingurukoak ezagutzeko asmoarekin.

Akuikulturaren hau goi mailako heziketa ziklo bat da eta, guztiak euskaldunak direnez, D ereduan ematen dira klaseak. Horretarako, gaztelaniatik eta galizieratik zuzenean itzulitako testuak erabiltzen dituzte. Proiektuaren hasiera data, berriz, orain 13 urte jar daitezke. Orduan honelako proiektu bat martxan jartzeko saiakera egin zuen Mutrikuko institutuko irakasle talde batek,

baina ezin izan zuten aurrera eraman. Ez zen beharrezkoa ikusi. 2000. urtean proiektua berriz martxan jartzea pentsatu zuten, baina oraingoan Mutrikuko Udalaren bultzada izan zuten. Udalak sustatutako Mutriku Berri enpresaren laguntza jaso ondoren, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren onarpena ere jaso zuten.

Oraingoz, taldean 14 pertsona dira, hamabosgarrena ez baita etorri, Galizian bertan hartu zutelako. Guztira 2.000 orduko ikastaroa da, nahikoa praktikoa; horregatik da talde txikia, hain zehatza den ziklo batean. Lehen mailan dauden ikasgai guztiak espezifikoak dira: moluskuen hazkuntza, arrainen hazkuntza, planktona haztea eta instalazioa ezagutzea, adibidez. Bigarren mailan,



AITA MARI
KAFETEGIA

Julio Beobide, 15 Tel. 943 861395 Zumaiá

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
Tel. 943 143089

garabidun kamioia baskulagaria
garabia: 15m-17m.

GARRAIOAK
Asensio Artetxe Iturbe

Tel.: 945 557 189 / 655 706 557
Iruñerri, 5 2A (Zumaiá) - Aitzpilagorta, 16 F (Mondrón)

ikasgai espezifikoez gain, beste ikasgai batzuk ere izango dituzte, heziketa ziklo bati dagozkionak.

Baina zer da akuikultura? "Itsasoko izakiak haztea" dela azaldu digu Imanolek, "bai animaliak, baita landareak ere. Hemendik aterako diren arrainek kontsumorako dira. Orruan dagoen lantegia, edo Igeldon aurki dezakegun Culmanor enpresa, arrainen hazkuntza mota honen adibideak dira".

Ziklo honen bidez akuikulturako instalazio bat diseina eta kudea dezaketen teknikariak prestatu nahi dituzte. Hemendik irtetzen diren ikasleek gai izan beharko lukete akuikulturako instalazio bat diseinatzeko, zein espezie haziko litzatekeen hautatzeko eta, hori guztia egin ondoren, baita martxan jartzeko ere.

Imanolen esanetan, "garrantzitsua da mota honetako ziklo bat hemen jartzea". Kontuan izan behar dugu heziketa ziklo hau estatuko beste hiru lekutan aurki dezakegula soilik: Pontevedran (Galizian), San Fernandon (Cadiz) eta Tarragonan (Katalunian). Hiru horietatik, Galiziako eskola nabarmendu beharko litzateke. Bertan eskola bakarra dago, goi eta erdi mailako zikloak ematen dituena, IGafa (Instituto Galego de Formación en Acuicultura). Han izena ematen duten 80 edo 100 ikaslegaietatik 40 hautatzen dituzte soilik. 20 pertsonako bi lerro egiten dira.

Galiziarren atzetik

Europako Batasunean gero eta lan gutxiago dago, baina Galizian alderantziz gertatzen da. Baina lanari euste hori ez dator "ekonomia berriaren" arlotik (telekomuni-

kazioak eta informatika); lana lehenengo sektoretik dator, "klasikoen eskutik": oihalak, egurrak, arrantza eta haragiaren arlotik, alegia. Beraz, lana sortzen ari den industria modernoa akuikultura dela esan daiteke. Datuek ere hazkuntza hori erakusten dute, Galizian akuikultura etengabe hazi baita, bai ekoizpenean, baita salmentetan ere.

Euskal Herrian oraindik urrun gaude zifra horietatik baina etorkizuna itxaropentsu ikusten du Imanolek: "Etor-kizuna, badu. Akuikultura nahi edo ez garatu egingo da, errealitatea da hori. Mundu mailako proteina eskariari erreparatzen badiozu, ikusiko duzu azken bi urteotan akuikultura gora doala eta arrantza behera". Azken urteetako datuek hori erakusten digute: arrantzatik atera den arrain kopurua % 6 hazi da; akuikulturatik datorrena, berriz, % 95. "Dagoen teknologia baino askoz hobea ezin duzu izan arrantzatzerako; beraz, logikoa da pentsatzea akuikultura garatu egingo dela. Baina puntu honetan betikoa gertatzen da: ideia ona duenak ez du dirurik eta dirua duenak beti jotzen du ziurrera".

Hala ere, Galiziako eta Euskal Herriko errealitateak ezberdindu behar direla azpimarratu du: "Han egiten dena ezin da kostalde honetan errepikatu. Galizian gartuago daude, baina oraindik gauza asko daude probatzen. Gaur egunean itsasoan paleolitiko garaian gaude: lehorrean ehizara joan eta uzta jasotzen zen moduan, itsasoan sarea bota eta harrapatu egiten dugu".

Gainera, akuikultura ez garatzeak ere badu bere arriskua ekonomiaren aldetik: arrain kontsumoari dagokio-

Alberdi

Gizonezkoen moda



Erribera kalea, 6
Tel. 861155

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64



ad

AUTOS ZUMAIA

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Kresala

Taberna

Julio Beobide 3, tfno. 943 019 869

ALTZARIAK OSTOLAZA ARozTEGIA



Mota guztietako
altzariak eta
aroztegi lanak

Julio Beobide, 1
TEL: 943 861325

nez, Euskal Herria Europako bigarren kontsumitzailea da –lehenengoa Norvegia da–, eta Imanolek azaldu duenez, "Esportatzailea den lurralde batetik, inportatzaile izatera pasako gara".

Kalitatea

Kontsumitzailearen eskutik etor daitezkeen mesfidantzek ez dute Imanolen iritzia aldatzen. Kontsumitzerako orduan, betiko arrantzaren kalitatea goratu eta akuikulturatik datorren produktua alboratuko ote dutenaren inguruan ere mintzatu zen: "Egia da arrantzako arraina kalitate onekoa dela". Baserrian hazitako oilo batekin eta pentsu bidez loditutako batekin konparatu dizkigu, "ezberdintasuna elikaduran dago". Akuikulturaren erabiltzen duten pentsua gero eta hobea da, eta "hasiera batean pentsa daiteke itsasokoa hobea egongo dela, baina gero eta gehiago ari gara janari natural horrengana hurbiltzen".

Argi utzi nahi izan du biak elkarrekin bizi daitezkeela. Itsasoan hazteko zailtasunak dituen espezie bat, adibidez,



Argazkia: Garbiñe Garagarza
LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZA

"Azalera handiko supermerkatuetan ikusten ditugun urraburuak kultibokoak dira"

itsasotik hartu, akuikulturako instalazioetan hazi eta berriz itsasora itzuli daiteke. "Akuikultura garatzeak ez du esan nahi arrantza gainbehera joango denik, arrantza dagoeneko gainbehera joanda dago, gehienez lagundu egingo dio".

Merkaturatzerako orduan ere abantailak ekar ditzake hazkuntza honek. Gaur egunean "azalera handiko supermerkatuetan ikusten ditugun urraburuak kultibokoak dira. Denak tamaina berekoak, antzerako pisukoak dira. Arrantzara irte ten zarenean zain egon behar duzu, baina honela gauzak erraztu egiten dira. Behar den arrain kopurua lortzea errazagoa da beti".

Arrantzaleentzat ere ez dela kaltegarria izango gogoratu digu: "Orain ontzi batekin atunak arrantzatzera joateko lehenengo Bordelera joan behar du, karnata bila, eta gero handik abiatu arrantzaren bila. Karnata hori hemen bertan ekoitziko bagenu kostuak murriztazagoak izango lirateke eta itsasoan kaltea txikiagoa".

H o r t z k l i n i k a

Mozès Hiriart eta SOULIER

Odontologoak

- * Odontologia orokorra
- * Periodontzia (kirurgiarik gabe)
- * Endodontzia
- * Inplantologia
- * Ahoko prebentzio eta errehabilitazioa
- * Protesia
- * Hortz estetika (zeramika metalarik gabe)

Inplantologia: teknika berrienei esker, inplanteak jar ditzakegu, nahiz eta hezur gutxi izan.

Larunbatetan egun osoa zabalik

Maria Etxetxiki kalea, 1 behea. • ZARAUTZ • tfnoa: 943-130278



Basadi Auzategia, 9-A 2-B

dekorazioa

ALBERDI

696 726188
943 143261

- Eskaiola
- Pladur-a



TXINGURRI

Koop. Elk.

Nekazaritza Injineru Teknikoak

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
GIPUZKOA Kalea, 33 C 3º 20.800 ZARAUTZ
(GIPUZKOA)

Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40

Jardinen diseinu
...manerimendua
Nekazaritza zerbitzuak
Kiroz elaien manerimendua
Txostenak ...
aholkularitza teknikoak.
Balorazioak



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
Tel. 943862309

Tren geltokia, homosexualitatea eta ogino metodoa



Ia inor ohartu gabe, badatorkigu urte amaiera. Atzera begiratzeko garaia helden da: zer egin dugun urtean zehar, zer utzi dugun egin gabe, eta halakoak egingo ditugu. Atzerantz

begira hasiz gero, begira dezagun zer azaltzen zen 1994ko azaroko Baleiken.

Tren geltokian egin beharreko lanei eta aldaketei buruz hitz egiten zen hilabete horretako erreportajearen. "Baskongadoetako" tren geltokia bota eta funtzionamendu guztia Urolako estazioa zenera eraman zen. Geratzen zen lur sailean, berriz, parke antzeko zerbait egiteko asmoa zegoen. "7.000 m² izango ditu parke honek, berdeguneak, bankuak eta iturriak edukiko ditu eta erabilpen ugariako kirol instalakuntza bat ere bai, Zumaiako Udalak hala eskatuta". Asmoak beti asmo.

40 urtetik gora geltokiburu izandako Manuel Esnalen iritzia eskatzen zen. Aldaketak egokitzen zituen eta Urola

tren zaharrari buruz ere hitz egiten zuen: "Neretzako ez zan kendu beharrik izango, lehenago behar bezela mantendu izan balute. Ikutu ere egin gabeko postea zeuden, urte askotan, herdoilak janda". Aditu baten hitza ziren hauek.

Ze berri atalean, paol muturreko barrako auzia jasotzen zen. Tribunal Gorenak dikearen eraikuntza gelditzeko Zumaia Biziriken eskaera ezeztatu zuen, talde honek aurkeztutako errekursoan ez zelako zenbaterainoko "inpakto medioambientala" egon zitekeen zehazten. Taldeko partaide batek zioenez, epaitegia kontraesan garbi batean zegoen, beraiek eskatzen zutena, hain zuzen ere, "estudio de impacto medioambiental" bat egitea zelako: "Beraz, nola zehaztu dezakegu aurrez zenbaterainoko inpaktua izango duen?". Garaiko alkateorde zen Asier Esnal-ek zera zioen: "Barraren berrikuntza ezinbestekoa da Astilleroen etorkizunerako, eta kirol portuaren eraikuntza lagunduko duten zerbitzu berrien sorrerarako".

Imanol Osari egiten zitzaion elkarrizketa. "Homosexualitatearen inguruan hipokresia handia dago", zioen Imanolek. Hala ere, bere ustez, homosexualen irudi txarra aldatzen ari zen. "Harro nago, baina ez homosexuala izateagatik, baizik eta ni naizelako naizen bezela; holaxe jaio naiz", zioen orain 10 urte Imanol Osak.

Kiroletan Igor Beristain genuen protagonista, ziklo-krosko munduko txapelketan aritutako txirrindularia. Oso tristetzat jotzen zuen garai hartan Zumaiako txirrindularitzak zuen egoera.


Gai hauetaz gain, beste hainbat artikulua interesgarri irakur zitezkeen azaroko zenbakian. Hezkuntzaren atalean liburutegiari buruz hitz egiten zen, eta naturaren atalean, Artadiri buruz. Natur Taldekoen esanetan, "Gipuzkoako artadiri interesgarrienetakoa da Zumaiakoa". Sexualitateko orrietan ogino metodoaz aritu zen kazetaria, haurdun gertatzeko metodo bikaina haren esanetan. Hauek eta gehiago orain 10 urte.



Era guztietako instalazioak etxebizitzan, pabilioi eta herriko argietan

Trenbide 5.pabilioia Tel./Faxa: 943 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 23
Tel. mugikorra: 608 143409



ADI

BASADI 28
20750 ZUMAILA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-mail: adiala@uzkainet.net

Plazaolaren martxan Leitzarandik barna

XABIER ARANGUREN

Ibilbide hau klasikoa da txirrindularientzat; izan ere, abantaila handiak ditu: trafikorik ez, ia aldaparik ez eta inguru paregabeak inguratzen du; zale "berri" eta gaztetxoek egin dezaketen txangoa da.

Bidegorri honek lehengo Plazaolaren burdinbidea aprobetxatzen du. Berez, trenbidea Lasartetik Iruñera zihoan, baina gaur egun, egokien erabil daitezkeen zatiak Andoain-Leitza eta Nafarroako hainbat zatitxo dira. Andoainera joateko, trena erabiliko dugu, Eusko Trenekoa lehenbizi, Renfekoa gero. Duela urte gutxi, Leitzarango autobidearen inguruan gatazka handia izan zen, eta, azkenean, eraiki eta gero, aukera jasangarrien alde apustu egin behar da mendi aldera jo nahi baldin badugu. Ibilbide honetan, Bidegorriaren hasiera topatzea da zailena. Horretarako, Andoaingo bigarren geltokian aterako gara trenetik eta eliz aurreko enparantzara joango gara. Bertan, norbaiti galdetzea litzateke aukerarik onena, kale egokira bidera gaitzan.

Bidegorria hartuta, berau segitzea besterik ez da gelditzen, baina ez da gure asmoa kilometroak irenstea ezer dastatu gabe.

Laster zibilizazioaren burrunbatik salbu aurkituko gara. Zubi handi bat pasa eta ibilbidearen tunel luzeena zeharkatuko dugu, zuzen-zuzena eta argiztatua, beste guztiak ez bezala. Irteeran informazio taula bat aurkituko dugu Leitzarango bailaran egin daitezkeen txangoei buruz.

Aurrerago, elektra etxe batzuk ikusiko ditugu ibai ondoan. Leitzarango ibarrak makina bat elektra etxe du, baina begi bistakoa da handiena, ubideak mendi magaletik datozela, kilometro askotan ibaian gora.

Aurrerago, Bertxineko estalpea agertzen da, ibaiaren amildegi ondoan. Zati honetan, erreka estutu egiten da harri artean.



ibilbideak

Geroago, baserri eta beste hondakin batzuk ikusiko ditugu, Inturiako ola zenaren azkeneko arrastoak. Laster presa baten parean aurkituko gara. Bainuzaleak kontuz, udan bereziki. Lauzpabost tunel pasa ondoren, Ollokiegi baserrietara helduko gara. Tren geltokiaren eta beste eraikin batzuen hondakinak ere aurkitzen dira bertan.

Hurrengo tunela ilunena da; beraz, adi. Ibai ertzak atsedendira hamaika txoko eskaintzen ditu eta hamaiketakoa patxada osoz hartzeko aukera ez dugu galduko. Zenbat ibai ertz aurkituko ditugu egoera honetan Gipuzkoan? Haltzak nagusi dira ibai ertzeko ekosistema aberats honetan.

Ari gara igotzen % 2,5eko malda; garai batean Plazaolako


haur jantziak

Amiako plaza z/g

Tel. 943 860959

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

Upela plaza, 4

tel: 943 860970

English School
Harvest

Ingelesko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis

Tel. 943 143334



Erreferentziak

- Andoain 0 km.
- Ollokiegi 9 km.
- Amaraun 14,5 km.
- Bizkotx 19,5 km.
- Leizta 25 km.

Luzera: 25 km (joan)

Desnibela: 300 m.

Zailtasuna: erraza, bereziki ohitura gutxi dutenentzat.

Oharra: argia eramatea beharrezkoa ez den arren, lagungarria da tuneletan.

trena mantso omen zihoan, hain mantso bidaiariak jaitsi egiten ziren, eta gero, berriz ere, pixka bat aurrerago, bagoira sartzen ziren, korrika batean.

Aurrerago baserri bat, eguzki plakarekin, iragana eta geroaren ikur bihurturik, autonomo bizitzearen aukeraz hitz egiten dugu. Berunezko parajejan gaude eta hemendik 4 bat kilometrotara Amezaungo baserria eta elektra etxea daude. Hodi handi baten azpitik pasa, beste tunel eta zubi batzuk pasa eta ubide ikusgarri bat ikusiko dugu ezkerrean. Laster tunel ikusgarri batera helduko gara, bi pisutan zatitua.

Hurrengo geldidunea Plazaolako n° 1 zentrala dugu, Bizkotxeko parajejan. Hemen kokatzen ziren Plazaolako trenaren

meatze, lantegi, labe, etab. Azken urteetan andoaindar talde bat ari da lanean, lehengo eraikinak berreskuratu nahian. Plazaola n° 2 elektra etxea eta Nafarroako lurretan sartuko gara. Honaino asfaltatutako bidea dugu. Pare bat kilometro eta autobidearekin topo egingo dugu, eta orain arteko xarma apurtu egingo da. Asfaltoa utzi eta 4 kilometrotara Leiztako geltokian egongo gara. Bertatik, herrira jaitziko gara. Itzultzea errazagoa egingo da, aldapan behera. Hainbat aukera daukagu itzultzeko, baita gero trenarekin konbinatzeko ere; hona bi aukera: Areso-Gorriti-Atallu-Betelu-Tolosa, edo Leizta-Leizalarrea-Goizueta-Hernani. Animo eta astindu gorputza. Osasuna!

Kresala
— edergintza —
Amaia Plaza
Tel. 943 14 31 35

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

D'Ana
Fleapaindegia
Kantauri Plaza 6, behea tel. 943 117 406

EGOKI
Erloju eta bitxidenda
E. Gurrutxaga plazan

Karidadeko Benta

diska berria grabatu du Azkarateko estudioetan ta bertara bixita egin dugu grabaketaren gorabeherak ikusteko.

Haize Galarraga

Tokitan dao ba estudio hori...



Anararren magalean...



Hori bai, lekua zoragarria



Beti bezela, danak nei eklipsau nahian

Helikoidea bai jarri behar dala altuo

Helikoidea?

helikoidea

Karteta jokatu de u ze instrumentun bolumena igo behar dan jakiteko

yastamos

Helikoide gutxio ta pandero gehio

Ze hostial Jetxi bera zeoze jo berkoilu, teknikua zai ziok etal

Nola piztuko ote da aparatu hau?



Jon, bukatu al dek azkenengo kanton letra?



Bertso bana jarrizuet. Aurrena Maialen, zuk abestu ta geo Xabierrek

Iepal



Maialen Lujanbio! Ta Xabier Amurizal



Paisajia Zoragarria

Nik esatenuna...



Je, Je, Je

Ze aika ote da tramatzen

Konforme

Bota puntua ta nik erritmuak markatukoiait



Baserri txiki batean

Ez hain txikia

Han Mantxi ta Tolo

Barruan lan da lan



Egunon,
Sartu barroa !

Nik usten det
klarinetia altuxio
jarri berko gendula

Kabensos! Klarinetia
bakarrik aitukoiiu

Joe Tolo Kriston
suertia dekozu. Ni
siesta botatzera noia.

Zeinek nahi du
siesta bota?



Etziok
musik

NIKI!!

Mus

Dikiko Joxeinaxio,
Las Vegasen
striperra izan zana...

Hauk ze,
ez al dia jetxi ber...



Kolaboratzaileak
iritisi dia

JETXI BERA
HOSTIA!!
Kolaboratzaileak iritsi
baina leusu!

A bai e



Egunon!!

Puntua, nik iten
detena da ta
ez beste hori.



Arruako erretore
Erramun Roteta...

kabroiak

Amurizana berriz
kanta herrikoi
OSPETSUA da

Asereje ase deje
dejede detu dubi
dubi. Hau
bertsoa al dek?

Asereje ase deje

Bueno, nahiko txorakei in dituzue gaurkoz ta hasi jotzen behingoz

Hori dek itxua

Ze kanta ari zarie jotzen?

Hou dek itxua

Raka Raka Raka Raka

Fliu Fliu

Drin Drin

Dome tx!! Guain ez hai horretan hasi!! Jotzen hasi ber diula

Hasi dia ba jotzen halako batian

Getaiko kalien, ixkina batian, hiru kakamokordo eskaparation, erosi nahi duenak errial batian

Tapa Tapa

Maraka solnuarekin eta San Felicisimoren beginadapean azkenean lortu dute ba Amore-Amore bigarren diska grabatzea. Durangoko Azokan aurkeztuko dute ta laister emango dute kontzertua Zumaian.



INMOBILIARIA 943 143361
 BIDAIK 943 143323
 Ortega y gasset, 1



- Elikadura, belarrak, buztinak, tratamenduak
- Kontsulta naturista
- Osteopatia, masajea
- Dietak
- Estetizista
- Solariuma
- Tai-chi, masaje eta Reiki ikastaroak

Arkupe

Okindegia eta gosariak



Kale nagusia, 2 Tel. 943 861521

TOMAS TABERNA

- APARTAMENTUAK -

- menuak
- plater konbinatuak
- pintxoak eta ogitartekoak

E. Gurrutxaga plaza

943 86 19 16



LIBRERIA
 AIZPURUA

Alta-Mari auzategia, 17
 Tel. 943 861569



Mota guztietako altzariak

Xanti Osa

Amaia plaza, 7
 talerra: 943 860914
 denda: 943 862385

orein errea gaztainekin

Sukaldaritza

O SAGAIK,
6 laguentzat:

Osagaiak (4 laguentzat):
Orein- solomo bat, 1/2 kg ingurukoa.
200 gr gaztaina.
100 gr esne.
Kanela-zotz erdi bat.

Satsarako:
3 kg orein hezur.
Azenarioak, porruak eta tipulak.
Litro bat ardo beltz.
Litro bat ur.
Gatza eta piperbeltza.

Nola egin:

Saltsa:

Gorritu hezurak eta berdura kazola batean, ondo; bota ardo beltza eta utzi mermatzen pixka bat. Gehitu ura eta utzi egosten, berriz ere mermatu arte. Iragazi eta prestatu behar bezala, bai lodieran, bai gatzaren aldetik.

Gaztaina purea:

Zuritu gaztainak eta gorde lau geroko, platera apaintzeko. Gainerakoak egosi esnetan, kanela-zotzarekin; utzi mermatzen, gaztainak erabat puskatu arte. Txikitu eta pasatu iragazkitik. Gorde geroko.

Hartu orein solomoa, gatzetz eta piperbeltzez ondu; gorritu ondo bi aldeetatik, baina barrualdetik oraindik gorria dela, eta

egin solomo txikiak. Plateraren erdialdera bota gaztaina purea, gaztaina oso batekin edo birekin. Inguruan jarri orein solomotoak eta nahasi saltsarekin.

On egin!

Beñat Fernandez
de Arroyabe
Sukaldaria



Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*

Zumbillo, 4 Tel. 943 861407



“Kuadrila bakoitzian 20 lagun baino gehixo izango ginan eta bi kuadrilak beti alkarren kontra”

ABELIN LINAZISORO

Bidasorotarrak haurtzarotik igeltserozan ezagutu izan ditugu. Guretzat Rufinonekoak ziren. Rufino zaharra, Donato, Trino, Joxe Luix, Benantxio... eta arrebak, Juanita eta Mari Justa. Langileak eta abertzaleak.

Noiz jaio zinen eta nora joaten zineten eskolara?

1915ean eta Tuntuxenea juten ginan. Hilean pezeta bat pagatzen zen eskola orduan eta sei urte egin bitartian han ibili ginan. Gero monjetara. Neskak goixan ibiltzen zian Goiko plaza aldeko horretan eta mutilak beian, Erribera kaletik sartzen. Bazan han monja bat, Hermana Amparo, beti guri egurra ematen ibiltzen zana. Egun batian juntatu gea hiru lagun haren kontra zerbait egiteko. Hartu deu buru beltza izaten zuten orratz haundi hoixetako bat eta hura jartzen zan sillan josi gendun behetik gora. Etorri da klase-ra monja hau eta exeri beharrean, silla Gipuzkoako mapa lekuz aldatzeko hartu zun. Orratza oinazpian sartu zitzaion. Nor izan zan jakin arte ez gendula inork ertengo eskolatik. Beste bi lagunak aurreko pupitrean nittun eta hankakin keimua egin nien ixilik egoteko esaten. Danok ixilik. Denbora pasa zan, haixek bildurtu



*“San Telmo egunian
lana eiten zan, baina
guk behin ere ez
ginun ein, e!”*

zian eta nere izena eman zuten. Urtebetean egon nintzan beheko kapilla txikixan bakar-bakarrik neure liburuekin. Azkenean hara errezatzera jaxten ziran neskaekin konfiantza ein nun eta hori okerrago zala-eta kendu zidaten kastigua. Baina nik ez nion amari ezer esan. Bueno! Hark albarketa hartu eta begiak itxita dinbi danba emango zidan-eta. Eskolako orduan errekreoan ere egonda nao kastingatuta. Gu monjetan ibili ginanean maristak oaindik ez zeuden.

Jolasean-eta nahiko ibiliko zineten, ba?

Orduan trenadioska, kortalibreka, kukuka, kanikaka, zibakin... Treneko billetekin ere bai. Obakin billete tontorra botatzen.

Garai hartan herria oso elizkoia izango zen, ezta?

Hil honetan, otubrian, izaten zan Jaungoiko Santua eta herri dana juten ginan eleizara. Errosaxua ere izaten zan eta hara jun behar izaten zan. Derrigorrez. Gu zimitaxuan ibiltzen ginan jolasian eta errosaxua hasteko momentuan, barrura. Bestela jolasian neguan Goiko Plazan ibiltzen ginan.

Zimitaxua eta Goiko Plazaz gain paol aldean-eta ibiltzen al zineten?

amaiako plaza, 2
Tel. 943 143278

Maite
ileapaindegia

Malaur

ert
informatika

tresna digi
internet
scanner

Eusebio Gurrutxaga, 6
Tel. 943 14 33 95

DALAC
COMPUTER

Udaberrixan-eta mendixan asko ibiltzen ginan Talaimendin-eta. Herrixan bi kuadrila haundi zaben. Joxe Iñaxio Apeztegin kuadrila bat eta guria bestea. Kastorreneko mendixan ere ibiltzen ginan. Han sasi asko zan eta ixkutalekuak eiteko harri bat hartzen gendun, belauniko jarri eta harrixakin sasixa zapaltzen eta baztertzen tunela bezelako zulo luze-luzeak eiten giñuzen. Beste batek kanpotik zulua sasixaz tapatu eta ez zeon gu bilatzerik! Kuadrila bakoi-tzian 20 lagun baino gehixo izango ginan. Eta bi kuadrilak beti alkarren kontra. Katu Plazara ere juten ginan.

Inpernupe aldera zertara? Jolasera ala arrantzara?

Arrantzara ez. Jolasera. Tesorua bilatzen-eta jardutzen genun. Kuadrilako batek etxetik zerbait eraman eta beste kuadrilak-kuak tesorua bilatu ein behar. Askotan soka eramaten gendun, txikixena gerritik lotu eta haitz haundi batetik behera zintzilika jarri eta hark beheko zulo batian ixkutatu. Beste batzuetan, bestiak kabitzen ez zian zuloetatik barrena Xanti Beltza sartu lau hankian, tesorua ixkutatu, atzeraka erten eta bale. Batzuetan ia geuk ere ez gendun bilatzen. Kuadrila kuadrilaren kontra beti. Alkarren kontra burrukan ere ibiltzen ginan.

Gerraka ibiltzen al zinatzen, ba?

Gerraka ez. Alkarren kontra borrokan haserratzen ginanian. Orduan borrokan ein behar izaten zan. Derriorrian. Bat txo-



“Askotan soka eramaten gendun, txikixena gerritik lotu eta haitz haundi batetik behera zintzilika jarri”

txolo jartzen bazan, bueno, andadio alkarren kontra borrokan!

Tesorua bilatzen ibiltzea zinearen eraginagatik izango zen, ba?

Bai. Orduan zineak Amaya eta Maitena zeuden. Maitena hasiera batian batzokixa zan eta han funtzixuak eiten zian. Zinea bestela abariak luistarren zentruan botatzen zuten, mutil kokkorrentzat, Kale Berrixan (Mari Kalea). Baina Amayara edo Maitenara 14 urte arte ez ginan hasi juten. Luistarren zentruan eta Goiko Plazan ikusten gendun zinea. Honea ijituak etortzen



TV-VIDEO-HIFI
ELEKTROGAILUAK
SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK
ERRIBERA, 8 943 861694

AROTEGIA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsiának
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Trenbide kalea, 1 Tel. 943143505



Tel. 943 860000

ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

zian eta zinea botatzen zuten gu umiak ginala. Joxe Manuel Zambuxo ere eramaten zuten bizkarrian hartuta, paralitikua zan-eta. Kale Berritik Goiko Plazara. Kale Berriko plazuelan egoten zan exerita piper poto huts batekin hara txixa eiteko.

Harengana joango zineten, ba, adarra jotzera, ezta?

Ez, ez. Bera txikixa zan eta buru haundi haundixa zeukan (menijitisen ondorioa) eta gu bildurto eiten ginan.

Eskolan 14 urte arte ibiliko zintaten, ezta?

Hamahiru urtekin hasi nintzan lanean. Konpitxeo Zaharreneko kaleko karnizeixan. Goizeko seiretan hasten ginan lanean eta beatzitan eskolara. Matantza zanian, berriz, goizian eskolik ez. Mataira. Guk orduan sasoi-a gendun eta porrakin txala buruan jo eta bale. Gu beti porrakin. Artia Txikixakin ere ibili nintzan, hark burutik heldu eta nik tak!, porrakin buruan. Pepe Txintxuak, berriz, aizkorakin, baina aizkoren atzealdiakin, e?

Zenbat denboran ibili zinen karnizero laguntzaile?

Urtebete-edo. Karnizeixak beia jo zun. Danak hil ein zian. Rotxil, Adolfo eta haiek danak ixkutatu zian eta ni orduan igel-terro aittakin.

Lanean hasi ondoren neskekin dantzan ibiliko zineten, ba.



“Neska batek guri kalabazak eman eta hark pieza hartan beste mutil batekin dantzan eiten bazun, mekaufen!”

Dantzan? Bai. Baita borrokan ere. Neska batek guri kalabazak eman eta hark pieza hartan beste mutil batekin dantza eiten bazun, mekaufen! Nesken kontra. Han ibiltzen ginan danok marruaka.

Neskatan ez zenuten asko egingo horrela ibiltzen bazineten.

Donato. Pieza bat sueltua eta bestia agarrau jotzen zuten. Gu agarrau zaliak ginan. Ba hori, jesukristonak eiten giñuzen.

Herriko festetan zer moduz?

Orduan Sanpedruak zian festa haundixak. Hiru egun jai. Garai hartan hiru egun jai zan, bueno, oraingo hiru aste bezela. Zapatu arratsaldian ere lan egiten zan-eta. Eta zapatueta askotan lan gehixena. San Pedro bezperan kalia musika, pasakallian, eta gu lanian. Hau bukatu ein behar diagu!, eta zea, gaueko beatzixak arte normalian eta hortik aurrera askotan. Egunion pixu bat ein behar izaten zan, ba, eta hura bukatu arte lanian.

San Pedro egunean trajeaz dotore jantzita ibiliko zineten, ezta?

Trajia ez. Baina ahal zan txukunena bai. Alkandora hutsik edo jertziaz. Trajerik ba al zan, ba, orduan? Guretzat festa haundixena dantza izaten zan. Beheko Plazara jun eta baltsian ibili.

Baleike. Eta San Telmo egunean?

San Telmo egunion lana eiten zan,



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 943 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**



Auto-konponketak

ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT

baina guk behin ere ez ginun ein, e! Arrantzaliak eiten zuten jai. Gure aittattak bazun San Telmo izeneko barkua, baina gu ez ginan itsasoan ibili, gure aitta mariatu eiten zan-eta. Orduan, ba, igeltserotzan hasi zan lanian. Orduan zenbat igeltsero egongo zan, ba, herri-xan? Oso gutxi. Eta neu ere, ba, aittakin lanera. Bestela San Telmo egunian Carmelo Unanuek lana eiten zun. Haixek lanian eta gu Zubiaurren hamaiketakua jaten, bapo. Gero Justanera juten ginan. Hango andria amandria gendun. Juana Beltzenekoa. Hamar-hamabi urtekin San Telmo egunian kanpaia jotzera juten ginan hara. Gero, amandriak galleta pare bana ematen zigun eta gu gustura. Han ibiltzen ginan urtero kanpaia jotzen ixa soka eten arte!

Eguneroko lanean zenbat ordu egiten zenuen?

Asko. Goizeko sei t'erditan hasten ginan. Hasteko ordua bagenekiu. Lagatzekoa ez gendun jakiten. Ilundu arte beti. Zenbat eta egun luziago, orduan eta ordu gehixo. Bazekin guri gaueko hamaikak jotzen andamixuan. Diferentzi eerra handik honea!

Batzokira bueltatuz, ikurrina legez-tatu zenean, ordurako talde politikotan banatuta al zeundeten? Abertzaleak eta karlistak, adibidez. Hasieran kontu haundirik ez. Hori handik aurrera sortu zan. Lehen esanda bezela, zine Maitenan zegoen batzokixa eta gero



l.934an edo 35an ein zan berrixa. Oiartzunen terrenotan. Lehen hirauliken almazena zegoen eta haren gainian ein zan. Erribera kalera eta moilara ematen zun. Moilako aldia emakumeena zan eta Erribera kaleko aldia gizonena. Orduan hasi zian Maitenan hizketako zinea botatzen. Leheno dana mutua zan-eta. Izugarrizko builak ateatzen genittun zinean! Bi zineak alkarri kompetenzixa eiten ibiltzen zian eta bi pelikula segido ere botatzen zuten. Amayan zinea mutua zanian orkesta jar-

tzen zuten zinea botatzen ari zen bitartean jotzeko.

Pianorik ez al zuten jotzen?

Ez. Pianoa batzokixan. Ladisen alabak eta jotzen zuten funtzixua eiten ai zian bitartian.

Batzokira joaten al zineten euskaraz irakurtzen eta idazten ikastera?

Ez. Gu beti lanian ibili ginan.

jarraituko du...

Kapaia
Saltea

Erribero Kalea 20750 ZEMAIJA (Gipuzkoa) Tel. 943 86 19 73

SAION
taberna

ORTEGA Y GASSET, 3 943 860151

"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

2005erako 10 agenda polita zozketatuko ditugu gure bazkideen artean!! Ez gattuk makalak!!!

Abenduko zenbakian argitaratuko ditugu emaitzak.

Zorte on!!!



B. Etxegarai 2, behea
943 86 27 14



GAZTEEN ERROPA

LASER BIDEZKO DEPILAZIOAN ESPEZIALISTAK



Gorputzeko edozein ataleko ileak kentzeko sistema berriak aurkezten ditu.

- Argiaren bitartez egindako depilazioa
- Luz pulsada (fotodepilazioa)
- Laser ND-YAG (40J.)

Bien arteko konbinaketarekin tratamenduetan azkartasun eta eraginkortasun handiagoa lortzen da.

BANAKAKO AURREKONTUAK

Bonifacio Etxegarai plazatxoa z/g. Tel: 943 861 322

BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9- Mod.
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
Tel. 943 14 33 69

Galdona



Mendaro marinela, 1 Tel. 943 861117
943 143346
Juan Belmonte, 15 Faxe. 943 861330

ITSASKI SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 943 143058

CROISSANTERIA

pizzak
hanburesak
bokatak...

Marina

Baltasar Etxabe, 2 TEL: 943 860719

ZALLA

Taberna - Erretegia

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 943 862387

olatu gainean

Ramon Egigurenek betaranoen Gipuzkoako eta Euskadiko Surf Txapelketa irabazi ditu aurtan

AITOR MANTEROLA

Guk zazpi-zortzi urte genuenean, gutxi batzuk surfeko taula eskuan hartuta ibiltzen ziren. Horietako bat zen Ramon Egiguren. Zumaian aurrenetakoak izan ziren surf egiten, eta gazte garaiko zaletasun hura oraindik ere gordetzen dute. "Gurea bigarren belaunaldia izan zen. Gure aurrekoak izan ziren lehenengoak surf egiten", esan digu Ramonek.

Urteak igaro arren, hor jarraitzen du olatu artean, eta orain, txapelketetan ere aritzen da. Maila onean, gainera. "Ia-ia nahigabe hasi nintzen txapelketetan. Orain bi urte sortu zen ZISKE, Zumaia surlarien taldea, eta haiek berotu ninduten", dio Ramonek. Aurtengoan, betaranoen Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketatan aritu da, eta biak irabazi ditu. Gustura da, nola ez, Ramon, baina garaipen horiei ez die garrantzia handirik ematen: "Niri surf egitea gustatzen zait, eta txapelketako emaitzei ez diet hainbeste begirutzen".

Oraingo garaipenak urte askoan olatu artean igarotako orduen ondorio dira. Gustura oroitzen ditu urte haiek Egigurenek: "Zeharo desberdina zen. Gu gizagaixo batzuk ginen hasierako urte haietan. Orruara joan eta ahal zen moduan ibiltzen ginen. Zarauztarrek, gure aldean, beste maila bat zuten, batez ere materialaren aldetik. Garai hartan trajea edukitzea oso zaila zen".

Oztopoak oztopo, surfarekiko zaletasunak aurrera egiteko indarra eman zien. Nola zaletu ziren, ordea, garai hartan, hemen hain ezaguna ez zen kirol batez? "Gu txanperoeekin ibiltzen ginen, eta gure aurreko belaunaldikoen alboan aritzen ginen. Orduak eta orduak igarotzen genituen haiei begira, eta hurrengo pausoa surfean hastea izan zen".



Bai orduan eta bai orain, Orruan biltzen ziren. Denborarekin, ordea, gauzak aldatu egin dira: "Gaur egun, Orrua masifikatuta dago, eta bistan-bistan dagoenez, handik igarotzen den edozein surflari sartzen da uretan. Bi aldetara oso olatu ona duelako, jende guztia Orruan sartzen da, eta horrexegatik, supermerkatua deitzen diogu". Surfaren etorkizunari, Orruako egoeraren antza hartzen dio. Zumaian gero eta gehiagok egiten du, baina horren muga zein den galdetzen dio bere buruari Egigurenek: "Zenbat eta surflari gehiago egon, orduan eta leku eta olatu gutxiago geldituko da. Non dago muga?"

Kezka horiek buruan dituela, orain hogeita gutxi urte hartutako olatuaren gainean segituko du Ramon Egigurenek..

ilargi
Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24

Itzurun
ATEAK

- Material guztietako leihoak:
PVC, poliuretano, aluminio eta egurrezkoak
- Armairu enpotratuak
- Tarima, ate eta era guztietako pertsianak
- Lanen zuzendaritza

Bezeroak gustura uztea da gure helburua

Itzurun zuhaitzbidea, 2 943861565 - 943143446

OIKIA 945 447683

Eskaladan eta gimnasia erritmikoan nor baino nor

ITSASO IBARRA

Futbola, eskubaloia, arrauna, piraguismoa....horiek ditugu herrian jende gehien biltzen duten kirolak. Zumaian, ordea, badira hainbesteko sona ez duten kiroletan lorpen garrantzitsuak izan dituzten 13 urteko



Izena: **Maialen Calleja**
Adina: **13 urte**
Kirola: **gimnasia erritmikoa**
Gustuko kirolaria: **Almudena Cid**
Beste kirolak: **futbola eta Surfa.**

bi gazte. Josebe Zarautz, eskaladan Espainiako txapeldunordea du; Maialen Calleja, berriz, gimnasia erritmikoan Gipuzkoako hirugarren. Espainiako txapeldunordea du, baina Josebe Zarautzek ez darama denbora luze eskaladan. Zumaian urtero egin ohi diren ikastaroetan parte hartu izan du, eta hor igo ditu bere lehendabiziko paretak. Ikastaro batean zebilela, irakasle batek Donostiako Fortuna taldera joateko proposatu zion. Horrela, Donostiara bi asteko ikastaro bat egitera joan eta taldean sartu zen. Bertan bi hilabete zeramatzala, Espainiako txapelketara joan zitekeela esan zioten.

Josebek irailaren 12an Bartzelonan izandako txapelketa zuen bere ibilbidean lehendabizikoa. Bertan, Espainiako txapela zuen jokoan 16 urtez azpiko mailan. Josebek dioenez, "txapelketa ez zen espero nuen bezalakoa izan. Pareta inklinatuak izango zirela uste nuen, baina, dena zuzena zen eta helduleku zailekin". Berak dioen moduan, "gaixo eta tripa hutsik nuela" igo zituen paretak. Beste komeriarik ere izan zuen gazteak: "Buruan kaskoa jarri zidaten, eta ni ez nengoen ohituta. Gainera, behera erortzen zitzaidan eta ez nuen ondo



ikusten". Hala ere, oso maila ona eman zuen Josebek eta Espainiako bigarren izatea lortu zuen.

Astean bi edo hiru aldiz joaten da Josebe Donostiako Pio Barojako roko-dromora. Bertan, egunean 3 ordu ematen ditu paretan gora eta behera. Donostiaraino joan beharra badu ere, "oso gustura joaten naiz; gainera, entrenatzailea, Igor, oso ona da", dio.



Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 943 861412



icardo J. Azcue Yeregui

Abokatuak • Aseguruak
Finke Administrazioak

txomin aguirre-4. behea
20.750 zuzaila (gipuzkoa)
E-mail: rjzcue@euskalnet.net

Tel. 943 862651
Fax: 943 862746



* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi,3-A
Tel. 943 861670

Josebek, eskaladan lauzpabost hilabete daramatza eta badu urrutira heltzeko esperantza. Josune Bereziartu gustuko duen eskalatzaile gazte honek abenduan Euskadiko Txapelketa jokatu du. Ondoren, beste bi txapelketa izango ditu Pio Barojan.

Josebe eskalatzen maila onean dabil, eta gauza bera egiten ari da Maialen Calleja gimnasia erritmikoan, futbolearen eta surfean.

Maialenek, 13 urteko gazteak, zazpi urte daramatza gimnasia. Ama gimnasia erritmikoko irakaslea du, eta horregatik hasi zen kirol honetan. Hala ere, dioenez, "gero gustua hartu nion eta aurrera jarraitu nuen". Iazko ikasturtean Gipuzkoa B mailako txapelketa



pelketa jokatu zuen Maialenek. Txapelketa honek bi fase izaten ditu eta horiek igaro ondoren finalera iritsi zen. Maialenentzat lehendabiziko txapelketa izan zen iazkoa, eta bertan hirugarren postua lortu zuen.

Gimnasta honek Zarauzko Xingola taldean entrenatzen du eta astean lau ordu igarotzen ditu Zarauzko kiroldegian. Gimnasia dauden modalitateen artean aroa du gustuko Maialenek eta gimnasta bat hautatzekotan, "duda-mudarik gabe, "Almudena Cid", dio.

Gimnasia astean lau ordu ematen ditu, eta beste horrenbeste ematen ditu futbolearen ere. Zumaiakoko futbol 8 taldeko jokalaria dugu Maialen. Saillapenean hirugarren doa taldea eta dioenez, "gol gehien sartzen dituen naiz". Iaz, gainera, selekzioarekin jokatzeko probak ere egin zituen gazteak.

Bi kirolekin gutxi ez, eta udaren surfeko taula hartu eta olatuen gainean ibiltzen da. Surfean ere maila onean dabil eta Zumaien izandako txapelketan bigarren geratu zen.

Hiru kirolekin aritzen da, baina hala ere dena iristeko denbora izaten du Maialenek. Azaldu duenez, "Organizatzen bazara dena da erraza; gainera, gero amak lagunduz gero...". Horrela, Maialenek ez du inongo arazorik ikasketak eta kirolak



Izena: **Josebe Zarautz**

Adina: **13 urte**

Kirola: **eskalada**

Gustuko kirolaria: **Josune Bereziartu**

Beste kirolak: **eskubaloia**

uztartzeko. Aitak ere oso harro dio, "denean oso ondo dabil".

Maialenek astebururo jokatzeko futboleko partiduak. Gimnasia, berriz, otsailean hasiko du txapelketa. Berriz ere Gipuzkoako B mailako txapelketan arituko da eta otsailaren 26 eta 27an izango du lehendabiziko fasea.

- Arrainak eta haragiak aukeran

- Eguneko menua

- Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 943 861853



BASUSTA
ERRETEGIA

Patxita Etxezarreta, 25 Tel: 943 862073

Autorretratu

ISMAEL MANTEROLA

Julio Beobide eskultorea Zumaian jaio zen 1891n eta Zumaian bertan hil zen 1969. urtean.

Erretratu izan zen Julioen zereginetako bat, eskultura erlijiosoarekin batera. Lepotik moztutako jendearen erretratu asko laga zituen lantokian, tipoak edo giza eredu batzuen ikerketa eta bilatzea izan baitzen bere bizitzako gai erabilienetakoa.

Baina aurrean zituen pertsonen erretratuez gain, bere buruaren erretratuak ere marraztu zituen behin eta berriz, artista askok egin ohi duen modura.

Autorretratu lantzean, artista askeago sentitzen da, ez daukalako lotura handirik ez bezeroarekin, ezta aurrean daukan eredu naturalarekin, eta horregatik bereziak eta ezberdinak izaten dira artista ia guztien autorretratuak.

Julio Beobidek ez zuen behin ere bere buruaren autorretratu eskulturan egin; aldiz, bere burua ezagutzeko marrazkia erabili zuen, ziur asko bere burua ispiluan ikusteko erraztasunak marrazkira pasatzeko aukera handiago ematen ziolako eta hurrengo urratsa, hau da, modelatura pasatzera, zaila egingo zitzaion eredu formala aurrean izan gabe.



Egilea: Julio Beobide.
Datarik gabe. Ikatz ziriz egindako paper gaineko marrazkia.
Foronda Kultur Etxea. Angel Martinez Borqueren dohaintza.

Forondan gordetzen den paper gaineko marrazki hau berezia da. Tamaina handi samarrekoa da eta ikatz ziriaz hondo ilundu du marra antzeko batzuen bidez aurpegiko eta gorputzeko argiak

gehiago leuntzeko.

Buruak duen jarrera Beobideren beste autorretratuetan ere ikus dezakegu: paperaren eskuinaldea betetzen duen ikuslearengana begira dagoen aurpegia, nahiz eta gorputzaren goialdea perfilez egon. Horrek keinua indartzen du, marrazki honetan keinua ere berezia baita, atzera egiten duen aurpegiak ezpainak beherantz estututa ditu, begiak txikiak eta bekaineko ximurak kopeta-koekin jarraituta.

Artistaren keinua dela esango nuke, zerbait neurtzen ari den artistarena. Badirudi eredu baten aurrean dagoen artistak atzera egin duela neurriak edo proportzioak hobeto irudikatzeko eta horregatik aurpegian jarri duen keinua.

Nire ustez, Beobidek artista moduan marraztu du bere burua, bai keinuaren bidez, baita laneko arroparen bidez, marrazkiak bi zentro-une ditu eta. Bata, aipatu dugun aurpegiaren keinua; bestea, jantzita duen laneko bataren "kuelloa". Gainera, bi gunek ezberdin marraztuta daude, aurpegia argi itzal leunez eta marra lausotuz eginda dago; arropak berriz, marra indartsu eta zuzenagoak, bien arteko aurkakotasunak sortzen du irudia.



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua

• denontzat irekia

ZINE FORUM

Azaroak 18, osteguna, 22:15ean

Memories of Murder

Zuzendaria: Bong Joon-ho

Aktoreak: Song Kang-Ho, Kim Sang-Kyng,

Hona hemen Bong Joon-ho zuzendari korearraren bigarren pelikula. Film honekin izugarritzko zirrarar eragin zuen 2003ko Zinemaldian, eta ez da harritzekoa, gaur egungo zinemako thrillerrik bizigarrienetako bat baita. Barking Dogs Never Bite»-ren egile gazteak oraingoan sekulako ausardia eta segurtasuna erakusten du bere lanean, genero batetik bestera mugitzeko, komediatik drama, intrigatik lirismora, lan bikain honen osotasunean inolako itzalik eragin gabe, gainera. Eta Joon-ho-ren segurtasunak badu ordaina: lan orekatu eta bikain hau. Hasiera ere gogoangarria da, CSI-ko Grissom bera zurbiltzeko modukoa; eta ez da gutxiagorako, hilketa gertatu den lekua, bat-batean, zirku makabro bihurtuko da, eta herriko poliziak bueltaka inguruan.

Sarrera hori, ordea, engainagarria da, pelikula beste bide batetik joango baita. Hego Korean, militarren diktadura, hilketak izugarriak ziren, katartikoak, hiltzorian zegoen erregimenean, eta hor dago kokatuta filma.



Abenduak 3, osteguna, 22:15ean

Capturing the friedmans

Zuzendaria: Andrew Jarecki

film luze dokumentala

Telebistako HBO kateak berriz ere erakusten digu gaur egun oraindik ere egin daitezkeela kalitate handiko produktuak, eta pelikula lazgarri honek argi eta garbi jartzen du hori agerian, itxuraz baketsua dirudien familia iparramerikar bat infernuko ateetara nola iristen den erakutsiko baitigu.



Oraindik ere film asko oinarritzen dira famili estamentuaren gainbeheran, baina dokumentala den neurrian, "Capturing the Friedmans" ezinbesteko lana da hainbat gauzaz hobeto jabetzeko; bestela, nola ulertu buruko zein engranaje konplexuk bultzatu zuten familiaburu eredugarria eta bere semeetako bat egin zutena egitera eta pederastiagatik kondenatuak izatera?

Friedmanstarrek etxean material ugari filmatzen zuten eta, neurri batean, Andrew Jarecki zuzendariak horiek ondo ordenatu besterik ez du egin famili album kezkarri honen fotogramak osatzeko; izan ere, Friedmanstarrek joera handia zeukaten, batzuetan gehiegizkoa eta konbul-tsiboa ere bai, etxeko filmetan hainbat egoera jasotzeko, batzuk xumeak eta xaloak, beste batzuk lazgarriak benetan. Gertaeren kateak etxeko bizimodua pitzatuko du, are gehiago ezkutuko errealitate ikaragarria agerian geratzen denean, eta hori guztia, azkenean, lehertu egingo da, Long Island-eko auzo finaren talde kontzientzian.

GOIKO BODEGOIA
"Betiko Goiko"
Erribera 9 - 20750 ZUMAYA • Tel. 943 861191

ILEAPAINDEGIA
FRUITZ
San Telmo, 12
Tel. 943 860760

OSTOLAZA
BURDINDEGIA
Aita Mari auzategia, 10 behea
tel: 943 86 16 66
e-mail: denda@ostolaza.com
www.ostolaza.com

Nikol Enea
TABERNA
Amaiako plaza

agenda

IRTEERAK

Abenduaren 18an: Kursaal aretora
VI. Gabonetako Gospel
Kontzertura (sarrerak kultur
etxean- 943-861056)

TURISMO BULEGOTIK:
943-143396

Abenduaren 18an: BAIONA-
DONIBANE LOHITZUNE
Urtarrilaren 29an: BILBO-ITSAS
MUSEOA

ERAKUSKETAK

Abenduaren 3tik 12ra
UDAL MUSIKA BANDAREN 25
URTE: Argazki erakusketa

Abenduaren 17tik urtarrilaren 2ra
ANTON EGIGUREN

Urtarrilaren 10etik 28ra
"Del AS al EURO" Erakusketa
numismatikoa.

DEIALDIAK

ZUMAIAKO VI. ESKAPARATE
LEHIAKETA

Eskaparateak prest egon beharko
dute abenduaren 10tik 30era
bitartean.

Saribanaketa, 30ean 20.15ean
Foronda kultur etxean.

Izenematea Kultur etxean eta
Turismo Bulegoan, abenduaren
4a baino lehen.

(943.861056 foronda@zumaia.net
/ 943-143396
turismoa@zumaia.net)

GABONETAKO BERTSOPAPER-
LEHIAKETA (oinarriak kultur
etxean)

INAUTERIETAKO KARTEL
LEHIAKETA: lanak aurkezteko
epea, urtarrilaren 17a. Oinarriak
kultur etxean.

IKASTAROAK

HAURRENTZAT:
Gabonetako Birziklapen Tailerra:
abenduaren 27tik urtarrilaren
5era.

Haurren Plastika: Urtarriletik
ekainera, astearte eta

ostegunetan.
Izenematea Forondan
urtarrilaren 15a arte (943-
861056)
INTERNET – k.z.gunean 943-
862866

ABENDUA

2, osteguna: 22.15ean Aita
Marin zineforum saioa
"Memories of murder"

5 eta 8: 17.00etan Haur zinema
saioa "Doraemon eta
Gladiadoreak"

16, osteguna: 22.15ean Aita
Marin zineforum saioa
"Grupo Salvaje" (klasikoa)

17, ostirala: 17.30ean Haur
Liburutegian, ipuin kontaketa
"Paperezko zirkoa"

20.00etan eta 22.30ean antzerkia
"Cocidito Madrileño"

19, igandea: 17.00etan haur
zinema saioa "Shin Chan..."

21, asteartea: arratsalde, Santo
Tomas festa



Antzerkia

Izen bereko liburuan
eta Radio Euskadiko
irratsaioan
oinarritutako komedia
maltzurra. Madrileko
tertulianoen azalean
sartuta, euskaraz,
elizaz eta ikastoletaz
jardungo dute.
Sarrerak Forondan
izango dira salgai
azaroren 15etik
aurrera

24, ostirala
"Niño Jesusen eskian", Gabon
Koruaren saioak kalez kale,..
Gabon Giroa
Arratsalde Gabon Abestien
Lehiaketa
18.30etan Jaiotza ikuskizuna
Eusebio Gurrutxaga plazan.
25, larunbata 12.30ean Udal

Musika Bandaren Eguberri
kontzertua
26, igandea 12.00etan haur
antzerkia, Hankatxo taldearen
"Xomorroak"
30, osteguna: 17.00etan eta
22.15ean Aita Marin zineforum
saioa "Shrek 2"



MENDI - ONDO C.B.
ELEKTRIZITATEA
Urola Plaza, 21
Tel. 943860074 - 943861569



Itzurun, 1 Tel. 943 143224



METRO taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620



AUTO-ESKOLA



ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 943 861018

- Gida baimen guztiak ateratzeko
baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe
eta profesionalak egitea

ile-apaindegia



Solarium

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21



taberna
JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20



taberna

Juan Belmonte, 6



Urumea, 6 Tel. 943 862083



Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena

• Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



ARTADI

**autoen konponketa
eta salmenta**

Trenbide Pasealekua, 4 - Pab. 2
Tf.: 943 861 433

